

DIKTAMEN 22/06

Maite Alonso, presidentea
Josu Badiola
Begoña Cabria
Aitor Idigoras
Ainara Ibañez
Lierni Lizaso
Idoia Pujana
Mari Tere Ojanguren
Eduardo Ubieta
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022ko uztailaren 15eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko irizpina: **Dekretu proiektuari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baita otsailaren 3ko 21/2009 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen.**

I.- AURREKARIAK

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezartzen du oinarriko zer arau aplikatu behar diren ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen sarea planifikatzeko, hezkuntza zerbitzu publikotzat hartuta, betiere. Hezkuntza-administrazioen egitekoa da planifikatzeko prozedura eta irizpideak arautzea, betiere errespetatuta aipatutako lege organikoan ezarritakoa.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen da, eta honako hau xedatzen: ikastetxe-sarearen programazioak bermatu behar du plaza publiko nahikoa egongo dela eskolatze- edo eragin-eremu edo -zona guztietan, kontuan izanda zein den ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen eskaintza.

21/2009 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen ditu.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektu honek artikulua bakarra eta azken xedapen bat ditu.

Artikulu bakarrak otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuaren hainbat artikulua aldatzen ditu, eta honela geratzen da idatzita:

Bat: Dekretuaren 1. Artikulua aldatzen da, euskal hezkuntzaren zerbitzu publikoa osatzen duten eta eskola-mapa osatzen duten ikastetxe publikoak eta itunpekoak aipatuz.

Bi: 2. artikulua idazketa aldatzen da, eta eragin-eremu guztietan titulartasun publikoko ikastetxe bat egongo dela bermatzen da; 4. puntuak, entzunaldi-izapidean sartzen dira tokiko administrazioak eta udaleko eskola-kontseiluak.

Hiru: 3. artikulua izenburua, 1. eta 3. puntuak aldatu dira, 3Bis eta 3Ter gehitu dira eta 5. puntua kendu da. (6., 7. eta 8. puntuak indargabetu zituen eskola-garraioa arautzen duen 186/2019 Dekretuak).

1 eta 3. puntuak Eskola Mapa eta eragin-eremuak definitzen dituzte, hurrenez hurren, eta horietan gutxienez titulartasun publikoko ikastetxe bat egon beharko da.

3Bisak eragin-eremuen funtzionaltasuna definitzen du.

3 Ter-ek eremu horiek mugatzeko irizpideak definitzen ditu.

Lau: 5. artikulua izenburua eta idazkera aldatu ditu:

- Plangintzaren helburua zehazten da, eta hezkuntza-etapa bakoitzean bizilekutik gertu eskola-plaza baten bermea adierazten da. Gainera, biztanleriak gora egiten badu eta plaza-eskaria handiagoa behar bada, plaza publikoak egongo direla bermatuko da.
- Jasangarritasunaren kontzeptua sartzen da, beharrak egokitzeari eta plazen eskaintzan hezkuntza-sistamarako interes pedagogikoa duten proposamenei arreta emateari dagokionez.
- Eragin eremuko ikastetxe guztien artean gizarte- eta hezkuntza-egoera ahulean edo egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleen presentzia orekatua bermatzen da, eta ikasle horien proportzioa orekatua izango da euskal hezkuntza-zerbitzu publikoko ikastetxe bakoitzean, horretarako behar diren baliabideak bermatuz.
- Eskolatze Batzordeak zainduko du ikasle horien proportzioa ez dadila handitu ingurunean dagoenarekin alderatuta, eta eskolatze orekatua egingo da ikastetxe publikoetan zein itunpeko ikastetxe pribatuetan.

Bost: 6. artikulua aldatu da, ikasturte-moten izena indarreko araudira egokitzeko; 5. puntuak gehitu da baliabide publikoen erabilera optimoa kontuan hartuta, ikastetxeen gutxienezko tamaina ez dela izango ikasturte bakoitzeko bi unitate baino gutxiago.

Sei: aldatu egiten dira 1., 2. eta 3. puntuak. 8. unitate bakoitzeko ikasleen kopuru maximoak eta minimoak Hezkuntza Administrazioak zehaztuko dituela ezarrita. II. eta III. eranskinetan jasotzen dira kopuru horiek.

Zazpi: aldatu egiten da 9. artikuluko 2. puntua, onarpen-bermeen lurralde-batzordeei esleitzen baitie eskola-maparen egoeraren azterketa eta, hala badagokio, aldaketa-proposamena.

Zortzi: lehenengo Xedapen Gehigarria aldatzen du Hezkuntza Sailaren izenari dagokionez.

Bederatzi: kendu egin da HLPPei buruzko bigarren Xedapen Gehigarria.

Hamar: lehenengo Azken Xedapena aldatu da, Hezkuntza Sailaren izenari dagokionez.

Hamaika: bigarren Azken Xedapena aldatu, ibilbide akademikoen ordeztu ibilbide akademikoak eginez.

Hamabi: plangintzaren denborari buruzko azken Xedapenetako Hirugarrena eta laugarrena ezabatu dira.

Hamahiru: aldatu egiten da I. eranskina, beste irakaskuntza batzuk ematen dituzten ikastetxeen izena jasotzen duena.

Hamalau: II. eta III. eranskinak aldatu dira: II. eranskinak unitate bakoitzeko ikasleen gehieneko ratioak jasotzen ditu, eta III. eranskinak, berriz, unitate bakoitzeko ikasleen gutxieneko ratioa.

Hamabost: ikastetxe itunduetan unitate bakoitzeko ikasleen ratioa jasotzen zuen IV. eranskina kendu da.

Xedapen Iragankorrak ezartzen duenez, hezkuntza-zerbitzu publikoko ikastetxeak pixkanaka antolatuko, planifikatuko eta egokituko dira dekretu honetan ezarritakora, argitaratu eta hurrengo lau ikasturteetan.

Azken Xedapenetako Lehenengoak araua erregelamendu bidez garatzeko eta indarrean jartzeko baimena ematen du.

III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluak adierazi nahi du zein zailtasun izan diren sektoreen parte-hartzea sustatzeko, arau-proiektua behar bezala aztertzeko eta ekarpen egokiak egiteko, gauden datak direla eta.

Dekretu-proiektu berria aurkeztu da une honetan zeinean euskal hezkuntzaren etorkizunari buruzko akordio politiko zabala abiapuntu hartuta, akordio horren ondoren euskal hezkuntza-sistamarako Hezkuntzari buruzko Lege berri batek eskatzen duen erregulaziorik ez dagoen.

Egoera horrek agerian uzten du, besteak beste, garrantzi handiko gai adostu batzuk, hala nola euskal hezkuntzaren zerbitzu publikoaren konfigurazioa edo gizarte- eta hezkuntza-arloko urrakortasun-mailarekiko eskolatze orekatua lortzeko prozedurak, zehaztasun-maila txikiarekin edo zehaztasunik gabe agertzea dekretu-proiektuaren testuan.

Hala, zalantzak sortzen dituen beste alderdi bat Lehen Xedapen Iragankorra, hizkuntza-ereduei buruzkoa, mantentzea da. Gure ustez, dekretu honen bidez ezin da egungo esparrua aldatu, eta etorkizuneko legean gai horri buruz egiten den edozein aldaketak xedapen hori aldatzea ekarriko da.

Bestalde, Hezkuntzako Lege Organikoaren aldaketa 2020ko abenduan onartzeak prozedura eta plangintza-irizpideak berriro arautzea dakar, eta, ondorioz, bertan oinarritzko arau gisa ezarri dena errespetatu behar da.

Aurrekoari gehitu behar zaio jaiotza-tasaren indizeak beheranzko joera duela, eta horrek eragin argia du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen matrikulazioan, eta bi sareetako ikastetxeetan plazen eskaintza planifikatzeko irizpideak berrikustera behartzen du.

Artikuluei dagokienez, aldatu beharreko artikulua ugariak diren arren, kontuan hartu behar da horien kopuru handi bat Hezkuntza Sailaren izenari buruzko ñabardurei buruzkoa dela, baita aipatutako zuzendaritzei eta zerbitzuei buruzkoa ere, eta izendapen generiko batekin erregistratuta geratzen direla, esate baterako, "Hezkuntza-arloko eskumena duen sailak".

Jarraian, dekretu-proiektua aldatzen duten alderdi esanguratsuenak azalduko ditugu:

- **Bat eta bi atalak:** (1 eta 2.1 eta 5.6 eta Xedapen Iragankorra) Lehen aldiz aipatzen da euskal hezkuntzaren zerbitzu publikoa, ikastetxe publikoek eta itunpekoek osatuko dutena.

Termino hori ere jasota dago LOEren 108.4 artikuluan eta euskal hezkuntza eraldatzeko oinarrien akordioan, ikastetxeek bete beharreko baldintzak ezartzen dira.

Kontseiluaren ustez, euskal hezkuntzaren zerbitzu publikoa Hezkuntzari buruzko Legean arautu gabe dagoen arren, Dekretu honetan aipa liteke hitz horien erabileraren erreferentzia-esparrua.

○ **Bigarren atala:**

- **2.1. artikulua:** titulartasun publikoko zentro bat egongo da eragin-eremu guztietan. Bestalde, **5.2 artikuluan** Derrigorrezko etapa bakoitzean bere bizilekuaren inguru hurbilean ikaspostu baten bermea aipatzen da.

Kontseiluak positiboki baloratzen du eragin-eremu guztietan titulartasun publikoa duen ikastetxe baten bermea, baina zalantzak ditu eragin-eremuaren eta ingurune hurbilaren kontzeptuei dagokienez, gure ustez baliokideak baitira. Hori dela eta, kontzeptu horiek bi artikuluetan argitzea eta berrezartzea proposatzen du.

- **2.5. artikulua:** hainbat prozesuk (batzea, integratzea, atxikitzea, jarduera etetea, bereiztea, zatitzea edo ikastetxeak sortzea) eragindako ikastetxeetarako aurreikusitako entzunaldi-izapidean tokiko administrazioak eta udaleko eskola-kontseiluak sartu dira, **eta Kontseilu honek positiboki baloratzen du alderdi hori.**

- **Hirugarren atala:** (3.artikulua) artikulua honetan zehazten dira eskola-mapa, eskola-barrutia, eskola-zonak eta eragin-eremuak. Plangintzak fokua eskola-barrutitik eragin-eremuetara eramaten du, zeregin handiagoa ematen die, eta haren funtzionaltasuna eta mugatzeko irizpideak zehazten dira.
 - **3TER artikuluan** irizpide gisa ezartzen da «a) Eremuaren osaera sozialaren heterogeneotasuna bermatzea, ahal den neurrian, biztanleria sozialki heterogeneoa estaltzeko.

Kontseiluak esaldiaren bigarren zatia kentzea proposatu du, ez baitu ekarpenik egiten, eta gizartearen osaeran heterogeneitatearen bermea soilik mantentzea. Hala ere, asmo hori konplexutzat jotzen du, gure herri eta hirien osaera kontuan hartuta.

Bestalde, alderdi batzuk onarpen-dekretuaren argitan bakarrik uler daitezke; 22/01 Irizpenean aldaketa horren berri eman dugu, eta oraindik ez da argitaratu.

Horrela, dekretu horren araberako eragin-eremuak lurralde-ordezkariek mugatzen ditu, toki-korporazioei eta onarpen-prozesuaren berme lurralde-batzordeei entzun ondoren.

Gainera, indarrean dagoen onarpen-dekretuan ezartzen denez, ordezkariak, lurralde-plangintzako batzordeetan eztabaidatu ondoren, gurasoen federazioei entzun ondoren, ezarriko dituzte ikastetxeen atxikipenak.

Kontseiluak bi dekretuak, oraindik argitaratu gabeko onarpen-dekretu berria eta plangintza-dekretu-proiektu hau, osagarriak direla onartzen du. Horregatik, kontzeptu batzuk berrikustea eta dekretu batetik edo bestetik arautzea proposatzen du, bakoitzaren helburuaren arabera; adibidez, plangintzako lurralde-batzordeak uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuan ezarrita daude, zeinaren bidez irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen baita, baina egokiagoa dirudi plangintza-dekretu honetan zehaztuta egotea.

- **4. atala** (5. art.)

5.4 artikulua: plangintza arduratsu gisa definitzen da, «jasangarria» adjektiboa erantsiz, eta hezkuntza-sistamarako interes pedagogikoa duten proposamenak ere kontuan hartuko direla gaineratzen da.

Jasangarritasuna diru publikoarekin finantzatutako baliabideen kudeaketa arduratsuekin identifikatzen dugu. Interes pedagogikoko proposamenei dagokienez, ikastetxe horiek euskal hezkuntza-sistemaren berrikuntzarako eta modernizaziorako erreferenteak izan daitezkeela uste dugun arren, pentsatzen dugu idazketa oso zehaztugabea dela, ez baitago argi nork eta zein irizpideren arabera erabakitzen dituen interes pedagogikoko proposamenak.

5.6. artikulua: Gizarte eta Hezkuntza-egoera ahulean edo egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleentzako plazak erreserbatzen dira eragin-eremuko funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxe guztien artean. Horretarako, euskal hezkuntzaren zerbitzu publikoko ikastetxe bakoitzean eskolarizatu behar diren egoera ahulean dauden ikasleen proportzio orekatua ezarriko da, eta horretarako behar diren baliabideak emango dira. Gainera, 5.7 artikuluan, ohiko onarpen-prozesutik kanpo sartzten diren ikasleentzako zuhurtzia gehitu da, ikastetxeko gizarte- eta hezkuntza-ahulean dauden ikasleen proportzioa gehiago ez igotzeko inguruko ikastetxeetan baino.

Plazen erreserba da zalantza gehien sortzen dituen alderdia, eta jada aztertu zen onarpen-dekretuaren aldaketari buruz. 22/01 irizpenean, Kontseiluak azaldu du: *ez dela ezartzen ikasle horiek onarpen-prozesuan izango duten prozedura, ezta zein baldintzatan ere; plazen erreserbari dagokionez, uste du oinarrizko irizpide batzuk ezarri beharko lirатеkeela, ikastetxe publiko zein pribatu itundu bakoitzeko lanpostuen ehunekoa zehazteko, bai eta erreserbatutako plazak arautzeko eta esleitzeko irizpideak ere. Gainera, beharrezkotzat jotzen du artikulua honen irismena argitzea, hau da, ikasle horiek eskolatzeko prozedura argitzea, kontuan hartuta, gainera, zaila dela hautematea hezkuntza-laguntzako behar espezifikokoak haur hezkuntzan dauden ikasleen artean.*

Kontseiluaren ustez, argi eta garbi zehaztu behar da plaza-erreserba horren hartzaile izango diren ikasleak.

Kontseiluaren ustez, zaila da hain garrantzitsua den gai horren inguruan iritzi ematea, aplikatuko diren mekanismoak ezagutzen ez direnean. Bere ustez, plangintza-dekretu horretan gehiago zehaztu behar zen gai hori (plazen erreserba-ehunekoa, aplikatzeko prozedurak, ...), ikastetxeentzat oso kezka-garriak baitira. Bestalde, badakigu oso konplexua dela prozesu berriak sartzea, ikasle horiek gizarte-kohesioa eta presentzia orekatua izan dezaten ikastetxe guztietan.

- **Bosgarren atala:** (6.5 artikulua) Ikastetxeen gutxienerako tamaina ikasturte bakoitzeko gutxienez bi unitate izan dadin ahaleginduko dela zehazten da.

Gure ustez, puntu hau ikastetxe publikoei dagokie soilik, nahiz eta artikulua-
ren izenburua ez den sartu.

Hezkuntza-hitzarmenean ikastetxe publiko idealaren tamainari buruzko hausnarketa estrategikoa egitea proposatzen da. Ez dakigu hausnarketa hori egin den ala ez, baina, edonola ere, uste dugu termino hori oso anbigua dela, eta, beraz, adostasun hori lortzen ez den bitartean, hobe da ezabatzea, ikastetxeetan eta haien hezkuntza-komunitatean sor dezakeen kezkatik.

- **Zazpigarren atala:** (9.2 art.) **Onarpen-prozesuaren Berme Batzordeei** esleitzen zaie eskola-maparen egoera aztertzea eta maparen balizko aldaketak proposatzea.

Positibotzat jotzen dugu Jarraipen-batzordeak kentzea, itxuraz ez baitziren eratu.

Bestalde, Onarpen-prozesuaren Batzordeen osaera ezarrita dago onarpen-
Dekretuaren proiektuan, bai eta horien eginkizunak ere, eta horien artean ez dago orain esleitzen zaiona; beraz, bi dekretuen idazketa harmonizatzea proposatzen dugu.

- **Hamalauugarren atala:** ikastetxe publiko eta itunduetako gehieneko zenbakiak (II. eranskina) eta unitate bakoitzeko gutxieneko zenbakiak (III. eranskina) arautzen dira.

Ikastetxe publikoen kasuan, ratioa murriztu egin da. Lehen Hezkuntzan eta DBHn 25etik 23ra, eta Batxilergoan 30tik 27ra. Itunpekoen kasuan ratio berak mantentzen dira, ez baitago autonomia-erkidegoak zenbaki hori mugatzeko eskumenik.

Eskola Txikiei dagokienez, baldintza bat ezartzen da: familien % 80k seme-alabak eskolatzea, lehen 2/3koa baitzen.

Kontseiluaren ustez, jaiotza-tasak behera egiten duen testuinguru honetan, hobe litzateke familien aukeraren 2/3ko indarreko egoerari eustea.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen kasuan, minimotik 17tik 13ra edo 11ra jaisten da, beste adin bateko beste talde batekin fusionatu ezin denean izan ezik.

Itunpeko ikastetxeetan, gutxienekoak 13 eta 11 dira, beste adin bateko beste talde batekin bat egiterik ez badago, edo udalerriko ikastetxe bakarra bada, eta hezkuntza-komplexutasun oso handiko ikastetxeetarako, berriz, 8. Gainera, ikastaldea sortzeko gutxieneko kopuruak bere eragin-eremuko ikastetxe publikoetako ikasleen batez besteko erlazioa hartuko du erreferentziazat.

Kontseiluaren ustez, ez da beharrezkoa azken esaldi hori gehitzea, bi sareetan gutxieneko zenbakiak finkatzeko irizpideak behar bezala mugatuta baitaude.

DBHn, bi sareetan, 17koa da gutxienekoa. Batxilergoan 17 ikasle zeuden gutxienez, eta itunpeko ikastetxeetan 18tik 17ra jaitsi ziren.

Kontseiluaren ustez, egokia da ratioak jaistea, kontuan hartuta demografiak behera egin duela eta heterogeneotasun handiagoa dagoela.

Azkenik, beharrezkotzat jotzen du indarrean dagoen Dekretuan agertzen diren Lanbide Heziketako ratioak ezartzea, bai II. eranskinean, bai III. eranskinean, dekretu honen aplikazio-eremuaren barruan baitaude.



Antzemandako akatsak

BAT: ez zaio puntu bat gehitzen 1. artikuluari, aldatu baizik.

BOST: 6. artikulua izenburua sartu behar da.

HAMAIRU: I. eranskina: jarri letra larriz: **A**rte Eskolak, **M**usika Kontserbatorioak eta/edo **D**antza.

HAMALAU: III. eranskina: ikastetxeen Zuzendaritzari buruzko aipamena aldatzea eta horren ordeztzea eskumena duen zuzendaritzak; gauza bera, B atalean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila aipatzen duenean.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2022ko uztailaren 19an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA

STEILAS-ek aurkeztutako boto partikularra

21/2009 DEKRETUA, otsailaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen berritzeko aurkeztutako dekretu zirriborroaren inguruko irizmena egin du Euskadi Eskola kontseiluak. STEILAS sindikatuak irizmenaren aurka bozkatu zuen 2022ko uztailaren 15eko iraunkorren eta honako boto partikularra aurkezten du.

- **Ikastetxe sarea antolatu eta planifikatzeko araudiak ikasle guztien hezkuntza eskubidea berdintasun irizpideen arabera bermatzea izan behar du helburutzat. Dekretu zirriborroak ez du, inondik inora, bermerik eskaintzen horretarako gurasoen aukeratzeko eskubideari lekua ematen zaion bitartean.**
- **“Euskal hezkuntza zerbitzu publikoak” ez du garapen juridikorik nahikorik** ikastetxeen antolakuntza eta plangintza kontzeptu honen arabera eraikitzeko. Hala nola, bertan parte hartzeko beharrezkoak diren baldintzen gaineko zehaztapenik ez du ezarri.
- **“Euskal hezkuntza zerbitzu publiko” kontzeptuak sistemaren pribatizazioa helburu duela antzematen da. Hortaz, ikasleen bazterkeria areagotzari ateak zabaltzen dizkio.**
- **Hezkuntza sistemaren plangintza eskola publikoa ardatz izanda eraiki behar da.** 40 urteko garapenaren ondoren agerian geratu da berau dela hezkuntzarako sarbidean eta bestelako esparruetan ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen duen bakarra.
- **Gobernuak negoziazio kolektiborako oinarrizko eskubidea urratu du** azken hamarkadan, ez baitu langileen ordezkariekin 185/2010 DEKRETUA, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen dekretuan jasotakoa bete. **Eskola publikoa osatzen dugun eragileon iritzia ere ez dira aintzat hartu** eta, aldiz, sare pribatuko patronalekin adostu da dekretua.
- **Euskara ardatz izango duen esparrua eta murgiltze ereduaren aldeko ikas-eredu bakarra** ezartzeko asmorik ez du ageri.